



Fabian  
Loidi  
Peña

1909-1985

BIDeGILEAK

Egilea:

**Alex Aisa**



FABIAN  
LOIDI  
PEÑA

(1909-1985)

## Gerran mairuen kapilau

**F**abian Loidiren soslaia hitz gutxitan egin daiteke: apaiz lanbidea zuen abertzale eta euskaltzale leiala, olerkiak eta bertsoak idazteko erraztasun eta zaletasun handikoa, Orioko traineruaren jarraitzaile sutsua eta bidaiari nekaezina.

### BIZITZA

Fabian Loidi Peña, 1909ko abenduaren 22ko goizeko hamarretan jaio zen Donostiako Añorga auzoko Añorga-aundi etxean. Gurasoak oriotarrak zituen, Bi-

xente eta Kontxa. Aitaren aldetik, aitona ere Oriokoa zuen, Ramon Loidi, eta amona berriz, Usurbilgoa, Ramona Errazti. Amaren aldetik, aitona Aizarnazabalgoa zuen, Inazio Peña, eta amona berriz Zarauzkoa, Teresa Larrañaga.

Bixentek eta Kontxak hiru seme-alaba izan zituzten: Erramun, Maria eta Fabian. Aita Añorgako Rezola porlan-fabrikako enkargatua zen. Oso gazte hil zen, 33 urterekin. Ama bigarren aldiz ezkondu zen Benedicto Lanziego errioxarrarekin eta bi seme-alaba izan zituzten: Bene eta Mercedes. Ez zen zorte handiko ez-

kontza izan: Benedicto, bigarren senarra, segituan hil zen; Mercedes alaba, 14 urte zituela; eta Bene berriz, Elgetan hil zuten frankistek 1936ko gerran.

Bost bat urte zituela hil zitzaion aita Fabiani. Urte zailak ziren, estualdi eta diru premia handikoak. Hori dela eta Fabianek haurtzaroaren zati handi bat Orioko Erzillatarren etxean egin zuen, familiakoak baitzituen. Han hazi zen Fabian eta handik aurrera lotura oso estua izango zuen bizitza osoan Erzillatarrekin eta Orioko herriarekin.



Añorgan, N-1 errepidea eta Rezola porlan-fabrikaren ondoan dagoen Añorga-aundi etxean jaio eta bizi izan zen Fabian

Oso gazte joan zen apaiz ikasketak egitera. Lehen ikasketak Andoainen egin ondoren, apaiz izateko Saturraranera joan zen ikastera lehendabizi, eta Gasteizko seminariora gero. Bertan egin zen apaiz 1935ean. Meza berria Añorgan eman zuen eta bertan Aitzol laguna izan zuen hizlari. Behin apaiztua, lehen apaiz lana Arabako Maeztu udalerriko Musitu au-



Fabian familiarekin. Ezkerretik eskuinera, Erramun anaia, Maria arreba, Kontxa ama eta Fabian bera



Fabian Orion bizi zela joan zen apaiz ikasketak egitera. Oso gazte joan zen seminariora

zoan izan zuen. Martin Lekuona apaiza ordezkatzera joan zen 1935eko ekainean, 20 bat familia bizi ziren auzunera. 1936ko gerrak Musitun harrapatu zuen Fabian: abertzale zelako salatu zuten eta preso hartu zuten frankistek. Gasteiztik Lizarrara zihoan trenean sartu zuten Laminoria tren-geltokian baina lehendabiziko tunelaren iluntasunean ihes egin, mendiz Lizarrara heldu eta koinatuaren etxean ezkutatu zen. Martin Lekuonak baino zorte hobea izan zuen, Errenteriako apaiz zela fusilatu egin zuten eta 1936an.

## TETUANERA REGULARREKIN

Donostiara itzuli eta handik gutxira regularrekin Tetuanera eraman zuten. Bertako tabor (batailoi) bateko kapilau izendatu zuten, bosgarren konpainiako bigarren taborreko kapilau hain zuzen ere, Toledo-ko Alcazarra hartu eta Madrilgo martxan parte hartu zuen Mohammed Ben Mizzian koronelaren aginduetara. Bertako soldadu guztiak marokorrak eta islamiarrak izaki, bitxia izan zen egokitu zitzaion lana: Kapilau kristau baten eginkizunak betetzea soldadu mairuen artean.

Gerra bukatuta, Karrantzako Aldeacueva eta Sierra bi auzo-parrokien ardura eman zion Lauzirika gotzain frankistak, zigorgisa. Han, Berroeta maisuaren etxean bizi izan zen 1945ean Igeldoko parrokiara bidali zuten arte.

## BERROGEI URTE IGELDON

1945eko azaroaren 15ean joan zen Igeldora erretore. Gaur egungo apaiz etxean jarri zen bizitzen amarekin. Ohiko apaiz lanak egiten zituen: egunero meza eman, bederatziurrenak, dotrina irakatsi eta abar.

Horrez gain, mezatarako abesti asko sortu zituen urte horietan guztietan, baina bat nabarmentzekotan San Pedro Igeldoko zaindariari eskainitakoa. Hauxe da kantuan gehien errepikatzen den zatia. Bi bertsio egin zituen:

Agur, Aita San Pedro zeruko giltzari  
gure aitonen aitak emana zaindari,  
ola-gizon, arrobi eta nekazari  
fedearekin gatoz zugana kantari.  
Gure Aita San Pedro zeruko giltzari  
fedearekin gatoz zugana kantari,  
odol-giroa kendu Euskalerruari  
denok bildu gaitezen maitasun-opari.



Fabianek ez zuen Donostia saltzeko, gustukoa zuen Gipuzkoako hiriburua. Honako hau, 1961eko irudia da, Amara Berri auzoa eraikitzen ari ziren garaikoa

Fabian ez zen geldirik egotekoa. Donostian eguberrietan antolatzen ziren Gabon kantu txapelketetan parte hartzera eramaten zituen Igeldoko haurrak. Berak sortu zuen gainera oraindik Igeldon bizirik den usadioa: haurrak gabon kantak abestuz baserriz baserri eskean ibiltzea alegia. Han biltzen zen diruarekin jostailuak erosten zizuten Zumaiako lantegi batean, dirurik ez zuten haurren artean banatzeko erregetan.



Fabianek Vespa eta Lanbretta motorrak erabili zituen batetik bestera ibiltzeko. Argazki hau Hondarribian egin zioten 1964ko abuztuan



Igeldoko hurrek behin baino gehiagotan lortu zuten sariren bat Donostian egiten zen Gabonetako kantu txapelketan. Honako hau, 1966an Victoria Eugenia antzokian jokaturako kantu txapelketakoa da

Euskarazko antzerkia sustatzeko lan handia egin zuen Loren Arrillagarekin batera. Baserritarrentzat pentsua saltzeko erabiltzen zen eraikinean, Alkartasuna sindikatuan, bertako ganbara egokitu eta antzokia prestatu zuten. Igeldoko makina bat haur eta gazte jarri zituzten urte askoan euskal antzerkia lantzen. Antzokiaz gain, zine aretoa ere izan zen.

Antzerkia eta zinemas gain, bidaiak ere antolatzen zizkien inguruko herrietara haur eta gaztetxoei, garai hartan ez baitzuten aukera handirik Igeldotik ateratzeko.

Estraperloan aritzea ere tokatu zitzaion. Gerra ondorengo urteak gogorrak izan ziren eta Igeldon ere baziren behar handia zutenak. Fabianek antolatuta, 14 bat



Igeldoko elizaren horman jarrita dago Fabianen omenezko oroitarria, «Eguzkitan argitsu, Loidi bera izan zen modura». Hala adierazi zuen Jesus Gaztañagak omenaldiaren egunean

urteko gaztetxoak joaten ziren Igeldoko Borda baserriko astoa hartuta Oriora Erzillatarren etxera. Han olio eta irinarekin astoa kargatuta, haurrak Igeldora bide batetik itzultzen ziren bitartean, Fabian beste batetik abiatzen zen, guardia zibilek susmo txarrik har ez zezaten.

Urrutiago ere joan zen estraperloan aritzeko. Aginagako gizon batek oraindik gogoan du nola ibili zen Fabianekin kontrabandoan, Tortosara angula eta itsaskiak eramanez olio eta arroza ekartzeko. Haren esanetan, guardia zibilaren beldur zirenez, kamioiaren atzealdean

altzariak jarri zituzten Fabian etxe trasladoa egiten arituko balitz bezala. Tortosan, apaizak batere gustuko ez zituen Lester batailoiko kide izandako errepublikar batekin egon ziren. Ez zuen denbora asko behar izan Fabian apaizari buruzko iritzia aldatzeko, hauxe esan baitzion azkenerako: «Hemen zu bezalako apaiza bageneuka, ni ere joango nintzateke mezetara».

Igeldoko San Pedro elizan ez ezik, Donostiako «Reparadoras» elizan eta Lurdes Txikin ere meza ematen zuen maiztasunez. Igeldotik gertu dagoen Orioko Lusarbe Erdi baserrira urte askoan joan zen igandero inguruko baserritarrei meza ematera. Kilometro asko egin zituen garaiako vespa eta lanbrettatan. Igeldoko elizatik oso gertu etxea zuen Kristobal Balenziaga Getariako jostun ospetsuak Fabianen ibilerak ikusita automobila oparituko ziola esan zion baina Loidik ez zuen onartu, oparitzekotan herritarrei emateko esanez. Hori bai, Fabianek gustura hartu eta jantzi zituen urteetan Balenziagak jositako sotanak eta bero-kiak. Ezin esan dotore jantzen ez zenik!

Balenziagarekin ez bezala, Igeldon hazitako Enrike Sarasola Lertxundi enpresa-gizon aberatsarekin izandako harreman ona galdu egin zuen. Enrike Sarasola *Pitxirri*ren ama ezkongabea zen eta Igeldo-ko Maria «jostuna»ri eman zion Enrike semea haztearen ardura. Urte zail haietan behin baino gehiagotan jaso zuen Pitxirrik Loidi apaizaren laguntza, baita ikasketak egiteko ere. Sarasola Donostiako Aurrezki Kutxan lanean hasi zen arren, dena utzi eta Kolonbiara jo zuen fortuna bila. Handik aberastuta itzuli zen 1970ean eta Felipe Gonzalez eta alderdi sozialista diruz lagundu zituen gobernura iristeko. Gonzalez presidentek ez zuen inoiz ahaztu jasotako laguntza, eta ondo eskertu zion egindakoa Espainiako gobernu-ko presidentetzan egondako urteetan. Pitxirrik aldiz, ez zuen berdin jokatu Fabianekin eta apaiz etxearen aurrean Loidi eta gainerako apaizak iraindu egin zituen Igeldora etorritako batean. Fabianen atsekabea ez zen berehala desagertuko!

Azken urteak eliz lanetan, atzerriko bidaiak egiten eta idazten eman zituen. Urte eroso eta lasaiak izan behar zirenak laino-

Egunkariak  
Fabiani egindako  
omenaldiaren berri  
omena zuten. Hemen  
*Deiak* argitaratutako  
albisteak



tu egin zitzaizkion ordea herriko gazteek eraikitako eliz atzeko aretoaren iskanbilagatik. Ez zuen asmatu gaia eramaten eta harremanak gaitzotu egin ziren betirako Fabian eta herriko gazte gehien artean. Aretoaren jabetza eta desberdintasun ideologikoak izan ziren ika-mikaren arrazoiak.

Bizpahiru urtez buruko gaixotasun bat pairatu eta gero, 1985eko apirilaren 8an hil zen hirurogeita hamasei urte zituela.



## Loidi'tar Paben

Berriago urte ezkerri igeldo ko errotore izan dan Loidi'tar Fabian, bere buruogista amasa ezteetan, Jaunik eraman da bertako irasidenera. Igeldo ra 1945 garen urtean bertau-kantari ageratu zitagunetik, gizon gutxi ezagutu ditut an maitetok, an lagun izatzi, an euzkera maitate ta euskal abere-maitate!

Beste bere garaweko apaiz jaun gorangari sakok bezala, abertzale izatagatik jaun izan bear zituon euzkaria bat nagobe! Gerriate asi zanesan Musitu izeneko erriku arabaterean, jagoen apaiz, bere auzetik gero antaneko don Martin Lekuona, gero gerriate asatukoan frankotarrek erail zuten apaiz gaste oyarituama, izan bertis zan bertako errotore. Apazigintzako onaspena, eman noteneko opa-ufari don Jose Maria Anasimulo, kAizola izan zuten, izan are, Loidi'tar Fabian gaste-gazterik asi zan olerki ederrenak idazten eta bertotetan, oraindik apazgiri zala, Gastez ko sinononosi!

Gerrateak, Araba rik ukatu zuan don Fabian, igela eta ikur-luan egun batzuk ibili ondoren, sakonik kasting bezala, moro antako «labore» batera idestatu zuten gure apaiza. Jasan izan bear zituonek! Basan eta oitua izan areko jende arakin, gure apaiz gasteak Zentat akuz erituzun nukion, don Fabian'i bere

urte aiatako apuzetaki.

.Azkenik, 1945 gurtean igeldora datotkigu gure olerkan ta apoz bertutetsua. Astindu ederrik eman zion bere garai on asan, igeldo ko gaste geroak! Makilla bat kufur-jantotatu zituzan bere igeldo ko urte izatean Aitorja ko semeak!

.Agintarian, geroagari ta euzkaldunentzako grifa tearra kalatu bear izan zan urte astu asan are, ikasi zituon Gobiernu-Oberko bidetik igeldo ko errotore jatorrak! Euskera ta Euskal-erria ten ezakubideak aintzat euzkuk ozteko itak, egin bear zari bakotzean, antan itango jiz zaituan Loidi'tar Fabian zutirik izan aurrean.

.Mundu onako apaiz gutxiak izaten diate nozibat bere amasa, eta arkonik auiduta zebilen don Fabian diotzekoa, izan zan berzan pitkar eta argi dan asan, bere eta idazi da mundo onaroko Jaunik dezala bere auker-tuan antean. An arkitako du Euzkari'te Nerretso. Et du emak izandon don Txomin Onandia orit! Alta Pierre Lafitte eta laurak, a zer euzkari'te zentat! Agur, don Fabian, eta laster arit!

J.J. AZURTZA'K

# Olerkari eta bertsolari

Fabianen heriotzak izan zuen oihartzuna prentsan. Nabarmentzekoa da J.J. Azurzak *El Diario Vasco* egunkarian idatzitako zutabea

## OMENALDIA ETA OROITARRIA IGELDON

Fabian hil eta gero, Kardaberaz eta Euskerazaintzako lagunek erabaki zuten ekitaldi bat prestatu behar zela bera omentzeko. Horrela, bere heriotzatik bost hilabetera, 1985eko urriaren 26an, egin zen Fabianen omenaldia. San Pedro elizan meza ospatu eta gero, eguerdiko 12:00etan, elizaren kanpoaldeko horman, Fabian Loidiren omenez jarritako oroitarria bistaratu zen. Ondoren Loidiren senitartekoak eta zenbait lagun eliz atzeko aretoan bildu ziren Fabianez eta haren olerkigintzaz hitz egiteko. Anto-

laketa lanetan aritu zen Jesus Gaztañagak aurkeztu zuen ekitaldia eta hizlari gisa Xanti Onaindia eta Manuel Lekuona apaiz lagunak, Jesus Mari Leizaola lehendakari ohia eta Ramon Labaien, orduko Donostiako alkatea, aritu ziren. Xanti Onaindiak eta Manuel Lekuonak Fabianen olerkigintzari buruzko argibideak eman zituzten. Xanti Onaindiak Fabianen olerkigintzaren ezaugarrien gaineko aipamenak egiteaz gain, estropadei zein euskal jokoei buruzkoak nabarmendu zituen. Manuel Lekuonak aldiz, bere lan oparoari buruzko hamaika aipamen egin zituen, *Orio'ko Umezurtza* olerkia goraiapatuz.

Jesus Mari Leizaola lehendakari ohiak eta Ramon Labaienek Fabianen erlijiotasuna eta euskaltzaleatasuna azpimarratu zituzten. «Fabian Loidi eta bera bezalako zenbait Eusko apaizi esker ez da hil euskara gure artean eta hori aitortu egin beharko diegu noizbait» adierazi zuen Ramon Labaienek. Alkateak, bestalde, Fabianen gizatasuna ere aipatu zuen ekitaldian, «gauzak bere tokian eta bere denboran esateko zuen adoreaengatik».

## AÑORGA ETA IGELDO GOGOAN, ORIO BIHOTZEAN

Fabian Añorgan jaio zen, haurtzaroaren zati bat bertan egin zuen eta harreman estua mantentzen jakin izan zuen bertakoe-kin (familiako zenbait kidek bertan bizitzen jarraitu zuten gainera, eta bizi dira gaur egun ere). Julian Rezolari, Rezola porlan-fabrikako nagusiari, makina bat porlan zaku atera zizkion debalde herri lanak egiteko. Telesforo Galparsoro mai-sua ere estimu handikoa zuen eta bertso hunkigarriak eskaini zizkion hil eta berehala auzoko *Añorga* aldizkarian, 1974ko uztailaren 16ko alean. Aldizkari horretan



Behin baino gehiagotan idatzi zuen haurtzaroko oroitzapenez Fabianek *Añorga* aldizkarian

gainera, haurtzaroko oroitzapenak gogora ekarri zituen Fabianek «Adiós Chirrista» gaztelera z gitarra tutako artikuluan.

Igeldon egin zituen urte gehien, 40 gutzira. Arreba Maria eta ilobak bertan bizi ziren eta Igeldo oso gustukoa zuela ezin uka. Harro ere sentitzen zen Igeldorekin, zeruaren puska zela esateraino.



1959an Bermeon irabazi zuen Orioko trainerillak Espainiako txapelketa. Bandera lortu eta gero, arraunlariak eta Fabian Loidi Gernikako arbola bisitatzera joan ziren. Jose Luis Miralles patrioiak eusten dio banderari

Donostian igo naiz  
 Igeldo-mendira,  
 zeruak bere puxka  
 utzi dun tokira...  
 Itxas-alde ta mendi  
 obeak nun dira...?  
 txoraturikan nago  
 andikan begira.

Antxe ixil-mintzoan  
 egin det obena:  
 Igeldo dalakoan  
 zerurik onena,  
 orra Jaungoikoa'ri  
 eska diotena:  
 emen ar dezagula  
 beti atsedena.

Orio zen ordea bere herri kuttuna. Orioko traineruaren balentriak eta desafioak ahoan zituen noiznahi, baita hurrei doctrina ematerakoan ere. Gutxi zen estropada eta arraun kontuan bera baino zaileagorik. Urte askoan irratiko estropada emankizunen hasieran Fabianen bertso bat jarri ohi zuten. *Txiruliruka* bere liburuan sail oso bat du eskainia Orio eta oriotarrei buruz. Guztiak aipatzea ezinezkoa denez, Iñaki Iturain, Ibai Esoain eta Xabier Sukiak *Orio, mende bat bertsoetan* liburuan aukeratutakoan artean bat hautatu da hemen erakusgarri.

Txalopan ere kuadrilla  
bialdu degu abilla  
Pasai arruaren billa;  
Domingo beltzak emen zemakin  
oso gaztedi txirtxilla  
nai badu izan dedilla  
argala eta debilla,  
Pasai utzi du ixilla.

Aipatu liburu horretan Orioko barran 1952ko apirilean Virgen Carmeli baporea irauli eta itotako bost arrantzaleen omenez Fabianek idatzitako bertsoak ere ageri dira. 2002an ekimen hunkigarri bat antolatu zen Orioko barran itotako guztien oroimenez. Hori dela eta, barra muturrean, oroitarri batean, aipatu Fabianen bertso horietako bat ipini zen plaka batean, baina handik urte gutxira itsasoaren enbata batek uretara eraman zuen oroitarria. Inguru hura konpondu ondoren, itotakoen omenezko plaka jarri zen berriro baina Fabianen bertsoak ahaztuta. Laster jartzekoak dira.

Oriotarren kezka  
miñena da barra;  
itxasorako duten  
ur-bide bakarra,  
ogi-billa joateko  
igaro bearra,  
eriotza dutela  
zelatari zarra...

## LUSARBE ERDI BASERRIAN MEZA

Orioko Bentatik gertu dagoen Lusarbe Erdi baserrian eskola berriro martxan jarri eta meza ematen hasteko ekimena izan zuen Fabianek. Hasiera batean Muniota, Benta, Lusarbe eta inguruko baserriko umeek, Orioko eskola urruti samar zutenez eta gainera bide eskasa, baserrian bertan ikasten zuten bertara joaten zen maistra batekin. Maistra, ordea, kendu egin zuten eta Orio bertara joatera behartu zituzten. Baserritarrek erabakiaren aurka egin zuten eta haurrak eskolara joan gabe geratu ziren tarte batean. Migel Berakoetxeak eta Fabianek egoera ikusita, hezkuntza saileko inspektorea ekarri eta lortu zuten klaseak ematen hastea berriro goizeko 09:00etatik 14:00ak arte. Fabian gainera eskola bedeinkatzeko eta meza emateko prest agertu zen, 10 bat lagun bilduz gero. Horrela, 1972ko azaroan eman zen lehen meza Lusarbe Erdi baserrian eta hainbesteko arrakasta izan zuen egun Lusarbeko aisialdi gunea dagoen eremuan, Foru Aldundiarenak ziren sailetan, eliza



Urte askoan aste egunez eskola emateko erabiltzen zen gela meza emateko prestatzen zen iganderako. Leku xumea izan arren, jende asko biltzen zen. Fabianek Lusarbe Erdin meza emateko erabiltzen zituen tresnak (kaliza, ardo goxoa gordetzeko ontziak, abestiak ...) gordeta ditu oraindik bertako Maria Makazagak

eraikitzeke egitasmoa ere oso aurrerata egon zen (lehen harria ere jartzera iritsi ziren baina Fabian gaixotu zenez, proiektua ezerezean geratu zen). Horrela, ezustean hasitako meza ia hogeituz eman zen igandero baserrian, azkena 1992ko urriaren 18an.

Urte askoan, maiatzeko azken igandean, Fabianek meza Lusarbe Erdi baserrian eman beharrean, Kukuarri mendiko ton-torrean ematen zuen Kukuarri Eguna

ospatzen zela aprobetxatuz. Erabakia ez da harritzekoa, Fabian eta beste zenbait lagun izan baitziren 1949an Kukuarri mendian dagoen gurutze handia eraikitzeke lanetan ibili zirenak. Handik hiru urtera Jorge Oteizak egin zuen Kukuarrin dagoen Ama Birjinaren irudia. Orioko *Karkara* aldizkarian 2008ko maiatzaren 23ko alean Antonio Zumeta *Txankek* idatzitako bertsoek gogoratzen dute aipaturikoa.

Krisintxio, Pako, Don Fabian ta  
 Patxi Lertxundi burua  
 zabaldu zuten Kukuarrin  
 gurutzia eiteko asmua  
 Patxi Lertxundi izan zan ango  
 orduko ingenerua  
 eskola aundirik etzuen baño  
 bazuen pulamentua.

Kukuarri Eguna maiatzeko azken igandean ospatzen da urtero, Orioko Talai Mendi elkarteak antolatuta. Bertaratzen direnei txorixoa eta salda ematen zaie doan, aurretik mezatan Fabian Loidik egindako Kukuarriko kantua abesten dute. Letra luzea denez, kantaren hasiera eta bukaera jaso dugu.

Kukuarri gainetik txoria kantari  
negarrez ari zaio Euskalerrriari.  
Zer nai ote du kuku txorino gaixoak?  
Zantzu txarrak al dira Euskalerrrikoak?

Irrintzi alaiakin bizituz fedea  
esna dezagun beingo azolakabea,  
kendu gezurra eta etsipen kaltea,  
zuzentasunarekin indartuz pakea.  
Kuku, kuku.

## OLERKARITZA ETA BERTSOGINTZA

Loidi'tar Paben edota Kirru ezizenez sinatzen zituen hastapenetan Fabian Loidik bere olerki eta bertsoak. Oso gazte hasi zen olerkigintzan eta 21 urte zituela Erreterian antolatutako Lehen Eusko Olerti Egunean aurkeztutako *Arraunketa* lanaren mailak harrিতuta utzi zituen garai hartako olerki zale eta kritikoak. Hauxe izan zen Loidiren lehen lan saritua.

Lau urte geroago idatzi zuen *Orio'ko umezurtza*, Manuel Lekuonaren iritziz bere literatura gailurra izango dena. Lekuona zaharrak atsekabea azaldu zuen Fabian Loidiren omenaldian, *Orio'ko umezurtza* poesian erabilitako moldean jarraitu ez



Orioko jendez inguratuta ageri da Fabian. Gurutzearen oinarriaren gainean, betaurreko beltzak dituen gizona Pako Barjacoba da, Fabianekin batera gurutzea eraikitzeko lanean aritutakoa

zuelako geroko olerkaritzan. Lekuonaren iritziz penagarria izan zen *Orio'ko umezurtzari* eskainitako poesiaren molde modernoan jarraitu ez izana.

Bertsogintza eta olerkigintza eskutik doaz Fabianen idazteko jardunean. Xanti Onaindiaren ustez, «bere poesigintza funtsean bertsogintza bat izan zen. Nik uste kantatuz egiten zituela gainera bertsoak. Horregatik azaldu daiteke hutsegite bakar

bat ez izatea bere metrikan. Akatsik gabekoa zen alde honetatik». Bertsoak idatzi arren, garaiko bertsolariak baino maila jasoagoa zuela uste zuen Onaindiak: «Bertsolariak baino maila batzuk gorago joana zen».

## ORIO'KO UMEZURTTZA, BERE LAN BIRIBILENA

Olerki hau oso gazte zela, 25 urte zituela idatzi zuen arren, bere olerkigintza-aren erreferentzia nagusizat har daiteke. Olerki honekin lehen saria lortu zuen, V. Eusko Olerki Egunean Eusko Poemetan izeneko sailean, 1934ko ekainaren 10ean Zarautzen. Bera izan zen urte horretako saritu gazteena, artean apaizgai zela eta ikasketak amaitu gabe zituela. Manuel Lekuonaren iritziz Fabianen lan onena da ezbairik gabe eta halaxe airtortzen du *Txiruliruka* liburuaren hitz aurrean «Esan beharrik ez, olerki horietan, sarituak bat baino gehiago badituzela; —guretzat eta edozeinentzat— sentimen eta artez onena *Orio'ko umezurttza*, denotan osatuena —Aitzol batek maite zuena—...»




Yakintza aldizkariaren 10. zenbakian, 1935eko uztailan, argitaratu zen *Orio'ko umezurttza* olerki saritua

Joseba Ariztimuño *Aitzolek* ere gorai-patzen du olerki hau 1934ko euskarazko olerkigintzari urte horretan egindako erreposoan. Besteak beste, horrelako laudorioak eskaintzen dizkio lan sarituari: «Gaiez bikaina eta irudipen aratzez aberatsa bada mamiz biribildua dugu. Badu ere beste edergarrikerik olerkari honexek, bertsoen jolaskera bihurri eta harrigarria alegia».

## HAMAIKA SARI JASOTAKOIA

Aurrez aipatutako sariez gain, Loidiren olerkiek hainbat sari lortu zituzten: 1950ean, *Aizkolariak* olerkiarekin garai hartako «Educación y descanso» zeritzanak antolatutako lehiaketan saria lortu zuen; *Iparragirre Ixildu Ezina* lanarekin, berriz, 1953an Gipuzkoako Foru Aldundiaren lehiaketan ere gailendu egin zen. Horrez gain, beste zenbait olerki ere sa-



Liburu honetan daude argitaratuta 1981eko Pasaia Hiria Olerki Lehiaketako lan irabazleak. Fabianek euskarazko lehen saria irabazi zuen *Gizona zorion billa irrikari* olerkiarekin


ritu zizkioten: *Bateltxoia Kulunkaz*, *Meza berria* eta *Erne Naparroa*.

Azken saria 72 urterekin jaso zuen, 1981ean Pasai Antxoko Udal Liburutegiak sustatutako Pasaia Hiria Olerki Lehiaketa irabazi zuen eta *Gizona zorion billa irrikari* olerkiarekin.

## BERTSOAK IDAZTEKO ERRAZTASUNA

Loidiren jarduna etengabea izan zen. Edozein une, gertaera, ospakizun edo gai egokia zuen bertsoaren bat idazteko. Hala ere bi gai nagusi dira bere bertso gintzan, ia obsesio ere bihurtzen direlarik: estropadak eta Orioko traineruaren balentriak batetik eta euskara eta Euskal Herriaren egoera bestetik.

Traineruen arteko lehiak eta Orioren garipenak inspirazio iturri etengabea izan zituen. Xanti Onaindiaren iritziz, Loidik gai hauen inguruan jarritako zenbait bertso Orixerenak baino hobeak ziren: «Ori-xeren maisutasunari ezer kendu gabe, Loidiren bertsoak biziagoak eta hunkigarriagoak ziren».



Jende askok ihes egin zuen gerra garaian jaioterritik. Bertso hau idatzi zuen Fabianek Landetara lanera joan behar izan zuen euskaldun jendea ikusita

Euskara eta Euskal Herriaren egoerak min handia eragiten zion eta bere idatzietan hauekiko erreferentziak nonahi aurki daitezke.

Loidi oso ezagun egin zen olerkari gisa eta leku askotatik eskatu zioten bertsoak eta olerkiak idazteko. Makina bat ezkontza, eztei eta ospakizunetarako idazteaz

gain, zenbait eskaera bitxiri ere erantzun zien: Eibar futbol taldearentzat kantua egitea eskatu zioten eta *Eibar football tal-diari eskainia* idatzi zuen. Egoibarrak, Eibarko memoria historikoa ikertze-ko udal batzordeak, kaleratutako *Eibar Kantuz Kantu* liburuan jasota dago abesti hori.

*Bateltxoak Kulunkaz* Ondarroako arrantzaleentzat egindako abestiak ere badu xelebretik. Saturraranen irakasle zen Andoni Basterretxea ondarrutarrak eskatu zion abestiaren letra egiteko. Orduko Ondarroako erretorea Pedro Arakama zegamar frankista arduratu zen musika jartzeko musikaria aurkitzeaz. Zegamako beste frankista bati eman zion enkargua, *Cara al sol* falangeko abestia egin zuen Juan Telleriari alegia. Ez zen Loidiren gustuko musika izango!



Txiruliruka

OLERKIAK

Loidi'tar Fabian

# Euskaltzale amorratua

Txiruliruka liburua 1977an argitaratu  
zuen Fabianek

## PRENTSAN ASKO ARGITARATUA

Fabian Loidi oso gazte hasi zen bertsoak idazten eta bere lanek berehala izango zuten oihartzuna garaiko euskal prentsan. 18 urte zituela, 1928ko uztailaren 22an Donostian argitaratzen zen *Argia* astekariaren alean *Kayuaren negarra* izeneko lana argitaratu zioten. Hiru urte geroago, 1931ko irailaren 13ko zenbakian *Arraunketa* izenekoa. Urte bereko irailean, esaterako, *El pueblo Vasco* egunkarian ere lan hori argitara eman zuten. Handik aurrera, hamaika argitalpen eta aldizkaritan bere olerki lanak argitaratzeko aukera izan zuen, berezi-

ki euskarazko olerkigintza sustatzeko 1959an sortu zen *Olerti* izeneko hiruhi-labetekarian.

1975ean berriz, *Boletin del Instituto Americano de Estudios Vascos* argitalpenean, 1930ean Euskal Olerti Egunean sarituak izan ziren Fabian Loidi eta Txomin Jakakortexarena olerkarien arteko posta bidezko elkartze bitxi bati buruzko informazioa eman zen. Biek Gasteizko seminarioan ikasten ari zirela jaso zuten saria, ondoren ere idazten jarraitu zuten baina gudaren ostean ez zuten elkarren berri izango: Fabian Euskal Herrira itzuli zen eta «Jaka»k erbestera jo behar izan zuen, Argenti-



Hauxe izan zen Fabiani argitaratu zioten lehendabizikoetako lana prentsan. Argia aldizkarian izan zen, 1928an

nara. 40 bat urte igaro eta gero, Fabi- nek *Martin Fierro* lana euskarara itzuli- ta eskuratu zuenean jakin zuen Jakaren itzulpena zela eta Buenos Aireseko pro- bintzian bizi zela. Ohiko eskutitza bidali beharrean, bertso batzuk idatzi zizkion aspaldiko adiskideari eta modu berean erantzun zion Jakak ere.

## El Encuentro de Dos Poetas

Por el Dr. A. M. de L.

En 1930 se celebró en Rentería el primer Día del Idioma Vasco, dedicado a Xabier de Lizardi (Domingo de Aguirre). Al concurso anunciada concurrecieron dos seminaristas de la Diócesis de Gasteiz, muy destacados como poetas en aquel seminario por entonces. Uno de ellos, Fabián de Loidi, con un trabajo sobresaliente "Arrauketa", las regatas. La poesía fue premiada. Y el otro, Domingo Jakakortxarena, cuya producción fue leída por una nekatza del grupo de declamadores "Moro Katua" muy celebrada y que tuvo el primer premio.

Ambos poetas continuaron su labor poética de manera destacada. Pero vino la guerra y les alcanzó la vorágine de la misma. Uno de ellos fue a la cárcel, el otro, expellán de gudarís primero y luego pasó a la Argentina. Hoy uno de ellos es párroco de Igueldo, en San Sebastián, Guipuzcoa, y el otro párroco de Mones Cazón, provincia de Buenos Aires.

Después de 40 años, ausentes el uno del otro, Loidi tiene unas referencias de su compañero al leer la traducción del "Martin Fierro" al euskera. Es la misión de Hernández, el gran gauchó, unidos y enlazados a estos destacados poetas, como lo hace con todos los gauchos amantes de la libertad. Presentamos las misivas originales, en verso, y acompañamos una traducción libre.

### JAKA'R I ESKUTITZA

<p><i>Jakakortxarena,</i> <i>tre albitsea</i> <i>zekark"Martin Burdin" ek</i> <i>lozez betea.</i> <i>Blotzean daramak</i> <i>Euskera maitea,</i> <i>beste bein josi diok</i></p>	<p><i>jantzi dotorea.</i> <i>Deken jakitea,</i> <i>ainbat adorea,</i> <i>bat bezin bestea</i> <i>ez dek arlotea...</i> <i>Dantza bear dek ire</i> <i>luma trebea.</i></p>	<p><i>Gure itsatoletan</i> <i>aurrak txalotua,</i> <i>alai zebillek ire</i> <i>"Moro Katua"...</i> <i>Lengo iturri ura</i> <i>ez dek agortua,</i> <i>bertsolari-neurrian</i></p>
--	---	--

<p><i>agaldaz pantua;</i> <i>azal da barua</i> <i>ongi tajutua;</i> <i>euskal-ingurua</i> <i>jartzen dik postua;</i> <i>gaurko poetak bear</i> <i>dun eredu.</i></p>	<p><i>Emen zebillek etsai</i> <i>madarikatua,</i> <i>galduz Logo Zar eta</i> <i>Fede Sautua...</i> <i>Urrundu izanetik</i> <i>aberi-mindua,</i> <i>sube-gortiak ez dik</i></p>	<p><i>erantsi mitua...;</i> <i>biotzeko sua</i> <i>daranak piztua,</i> <i>orahetik gortsua,</i> <i>hai alajainkua...!</i> <i>Txamin, lengo lepatik</i> <i>daukuk burua.</i></p>
--	--	---

LOIDITAR PABEN

### LOIDIREN ESKUTITZARI, ERANTZUNA

*Lagun kutun bat, artekari,*  
*Loiditar Paben leritza,*  
*Amerika'tik eskutitza*  
*Iakas'en Moro Katuari.*

<p><i>ire araukietako</i> <i>ez bezelakoa,</i> <i>bein lo ziguten urten</i> <i>zapatetako;</i></p>	<p><i>txanpa bitiz zeartu</i> <i>gamin itxasoa,</i> <i>norantzakorik gabe...</i> <i>Ura ango kaitoa!...</i> <i>Regitar maitea,</i></p>	<p><i>biurtuz lepoa</i> <i>galetsiz ba ma</i> <i>Aberi gaixoa.</i> <i>Moro Katua eta</i> <i>lagun maitea.</i></p>
--	--	---

Andres Maria de Lrujok argitara eman zituen *Boletin del Instituto Americano de Estudios Vascos* aldizkarian bertsoan idatzitako Fabiagen gutuna eta «Jaka»ren erantzuna

## TXIRULIRUKA, LIBURU BAKARRA

Loidiren poesia lana ezagutzeko biderik zuzenena *Txiruliruka* liburua da. Karda-beraz Bazkunak kaleratu zuen 1977an eta egilearen 105 olerki biltzen ditu. Fabianek berarentzat eredu eta maisu izan ziren Manuel Lekuonari eta Joseba Ariztimuño *Aitzoli* eskaini zien liburua. Hala, liburuaren hitzaurrea, nola ez, Manuel Lekuonak idatzi zuen egilearen bertsoen txukuntasuna nabarmenduz. «Inon gutxitan ikusten den bezalako txukuntasuna bertsoaren soinean, azalean. Ikus, batik bat, bertsoen puntu rima, Xenpelarren iduriko, zehatz landua, baina puntu erraz oparo ugari dariona.»

Olerki liburua bost zatitan bereiztuta dago. Lehen zatian «Oriotarrak» izenpean, bere bigarren sorterriko hamaika pasarte, pertsonaia eta gorabehera jorrazten ditu, baina gai nagusia, nola ez, itsasoarekin loturikoa izango da: *Tarrabillon*, *Bale-arrantza*, *Orio'ko aundia*, *Txokolate*, *Ik neri-nik iri*, *arraun-doiñuak*, *ijito-erria*, *Orio'ko Motxa...*

«Lirika eta...» izenburua du liburuaren bigarren zatiak. Bertso hunkigarri asko daude bertan bildurik, baina nabarmentzekoak dira zenbait aňorgatar, antiguatar eta igeldotarren heriotzei buruzkoak, gaztetxo eta haurrenak bereziki: *Agur*, *Maitere*, *Galdera biurria*, *Martin Lekuona*, *Jose txo ere il...*, *Telesforo Galparsoro*, *Don Julian Rezola...*

Hirugarren zatian olerki elizkoiak datoz. *Nere meza berrian*, *Pazko eguna*, *San Isidro*, *Apaizen amari*, *Gaurko apaizari*, *Zigor lana apaizari...*

Laugarrenean, berriz, «Errizaleak» izenpean, zenbait pertsona, toki eta gertaeraz baliatzen da olerkiak eratzeko: *Isidro Ansoarena txistularia*, *Don Alejandro Alberdi Igeldoko organistari*, *Iparragirre «Ixildu ezina»*, *Orreagako guda*, *Aizkolariak*, *Altxerriko aitzuloa ta Oteiza*, *Erne Naparroa...!* eta abar.

Azken zatian, bosgarrenean, «Lagun-Artekoak» izenpean, zenbait adiskideri idatzitakoak biltzen dira: *Eztaiak Biriatur*, *Jakari eskutitza*, *Mariano Azurtzari*, *Aita Onaindiari...*

## EUSKARAREN ETORKIZUNAZ KEZKATUA

Fabianen ama hizkuntza euskara izan arren, Gasteizko seminarioan ernaldu zitzaion euskaltzaletasuna. Horretan eragin zuzena izan zuen 1924an sortutako Kardaberaz Bazkuna taldeak, On Joxe Migel Barandiaranen partehartzearekin eta Manuel Lekuona buru zela. Talde honek bi helburu zituen: euskararen alde lan egitea, kristau pentsaera erres-

petatuz. Garai hartan zenbait apaiz oso kezkatuta zeuden euskararen egoerarekin eta euskaraz idaztea eta euskara zabaltzea izango da euren helburu nagusia. Fabian Loidi ikaslea zen artean, baina bat egin zuen taldearen asmoarekin eta garai horretarako hasia zen bertsoak idazten eta euskararekiko kezka eta maitasuna adierazten. 1936ko gerrak baina, bertan behera utzi zituen Kardaberaz enbargo egitasmo guztiak eta 1970. urtera arte ez da Kardaberaz Bazkuna birsortuko. 1971ko otsailaren 18an antolatu zen Loiolan lehendabiziko batzar nagusia. Fabian Loidik eta beste 27 lagunek parte hartu zuten batzar horretan.

Fabian Kardaberazko kide ez ezik, Eusko Ikaskuntzako ere izan zen 1936. urtera arte. Euskara sustatzea bere bizi-tzaren ardatzetako bat izan zen. Dotrina euskaraz irakasten zuen eta ebanjelioaz gain, euskal kantak ere erakusten zizkien haurrei. Gurelesa enpresan ere makina bat idatzi euskaratu zituen Anjel Erzilla nagusi izan zen garaian.

Euskararen etorkizunarekin oso kezkatuta zegoen. Fabian gizon alaitu eta bai-

### LEKUONA, EUSKEL-ITURRI

Nere biotz-gogoak  
nai lukean bezin  
txori-abots ederrez  
kanta nai, ta ezin...  
Dezakegun bidetik,  
naiz ta gogor ekin,  
Lekuona'ri nola  
ordaindu itzekin  
damaigun ainbat euskal-etekin..?

Biotzez gelago naiz  
adimenez baiño,  
oinkeri ona gogoz,  
adi-argiz laiño.  
Elburua deika det  
-Atoz oneraiño..!  
Jardun-bideak ez nau  
ase oraindaiño.  
Argi, zatozkit lagun goraiño..!

Euskel-egarri danak  
or du Lekuona,  
Oyartzun-ibarrean  
ur-begi orona,  
ale-arritik ura  
garbi dariona,  
ari-ariz loratzen  
zelai ta zakona.  
Gorrotagarri zaio egona.

Imanol Lekuona'k  
autsi du eziña;  
bizigarrien billa,  
ziztaz euskal-miña,  
apaiz-etxetik jaso  
zuan ikurriña.  
Egundoko lensa du  
geroztik egiña;  
beti lanpetua ta gordiña.

Fabian Loidik miretsi egin zuen Manuel Lekuona eta haren lana. Inon argitaratu ez diren *Lekuona, euskel-iturri* bertsoak idatzi zituen. Bere idazmakinan idatzitakoak dira aipatu bertsoak. Bertso sorta osotik, gutxi batzuk iritsi dira guregana

korra izan arren, kopetilun jartzen zen euskararen etorkizunari buruz hitz egiterakoan. Kezka horiek etengabe azaltzen dira bere bertso gintzan. Gizartean gertatzen ari ziren aldaketak ez zituen gogoko: baserriaren gutxitzeak eta bizimoduaren bilakaerak euskararen heriotza ekarriko zuela uste zuen.

Euskera baserritik  
igesi dijua.  
ama bere semeak  
arrikatua...  
Gure arbaso zarren  
abenda-oyua,  
birau zakarrrik ez dun  
izkuntza goxua;  
amaren altzua  
dan bezelakua  
errugabekua,  
zeruan sortua  
Jainkoak euskaldunai  
emandakua.

## APAIZ ABERTZALEA

Fabian Loidi abertzale sutsua izan zen. Harreman estua izan zuen gainera Eusko Alderdi Jeltzaleko agintariekin eta hori agerian geratu zen 1960ko martxoaren

28an, Donibane Lohitzunen, Jose Antonio Agirre lehendakariaren hileta elizkizunean. Partehartze zuzena izan zuen elizkizunean eta ondoko bertso hauek eskaini zizkion Agirreri:

Aberri maitagarria  
negarrez dago erria;  
il zaigu Lendakaria.  
Bidasoaren alde banatan  
beso ta oiñez josia,  
euskera iltzen asia,  
odola beltzez nasia...  
Zertarako da bizia...?

Euzkadik bere Jaunari  
seme onena opari,  
erri-otoitza du ari,  
eriotz onek autsi du gure  
bildurra zigordunari,  
zutitu jende ugari,  
askatasuna eskari.  
Pentekostes'ko mirari.

Euzkadi degu kaiola;  
erria preso dagola,  
ezin ixildu iñola,  
Donibane'ko illobi orrek  
sutu du euskal odola.  
Aberriaren ajola  
esku onetan dagola,  
pozik gaude, Leizaola.



Fabian, Jose Antonio Agirreren hiltzaren aurrean, Jesus Maria Leizaolaren kapelua eskuetan duela, lehendakari berria kargua hartzen ari den bitartean



Jende asko bildu zen Jose Antonio Agirreren hiltzaren inguruan Donibane Lohitzuneko kaleetan. Fabian ere bertan zen

Fabian Loidiren pentsaerak eta ideologiak arazo bat baino gehiago ekarri zizkion. 1935ean, Musituko apaiz zela, salatu zuten estreinakoz bertso hau kantatzeagatik:

Ango oihuak eta lainuak  
an ziren kainonazuak  
menditikan bera iesi dijoaz  
orduko general karlista faltsuak

Guardia zibila joan zitzaion bila bertsoan esandakoagatik. Fabianek, baina, bertsoak idazten ez ezik bat-batean ere ez zela makala erakutsi zuen: salatariak ez zuela ondo entzun esan zien guardia zibilei, bere burua defenditzeko, gaizki

ulertu zutela, *karlista faltsuak* esan beharrean, *karlista gartsuak* esan zuela.

Gerra ondoren, Aldeacuevan erbestertuta eta zigortuta zegoela, arazo asko izan zituen egindako sermoiengatik. Fabianek ondo baino hobeto adierazi zuen bertso honetan Karrantzako Lanzasagudasko elizan esandakoarengatik gertatutakoak:

Sermoiak illundu zun  
norbaiten kopeta,  
ura etzala noski  
bear zan izketa.  
Don Bruno maisu zanak  
jo zuan tronpeta:

—«Santiago y cierra España!!  
quien no lo respeta,  
como este cura vasco,  
ira a la puñeta...!»

Maisuarekin denak  
zuten errepika:  
—«Queremos evangelio  
y no política...!»  
Bazkaldu barik nintzan  
atera korrika,  
aserre bait nituen  
atzetik arika.  
Gero denak azturik,  
dantza ta musika.

Arazoak arazo, Fabian ez zen kikildu eta prest azaldu zen abertzaleak laguntzeko eta abertzaletasuna sustatzeko. Bere eta Balenziaga jostunaren lehengusu Benjamin gazte abertzale batek, frankistak segika zituela, Karrantza aldera jo zuen laguntza eske; Fabianek Berroetatarren etxean 6 urtez ezkutatuta eduki zuen Benjamin etxetik atera gabe, bertako herritarrek inongo susmorik har ez zezaten.


Aldeacueva utzi eta 1945ean Igeldoko parroko izendatu zuten. Fabianek ez zuen frankismoaren aurrean etsi nahi eta haren aurkako mugimenduak oso gertu-



Jose Antonio Agirre lehendakaria Parisen erbesteratuta zegoela bisitan joan zitzaion Fabian beste zenbait apaiz lagunekin



Jesus Maria Leizaola lehendakaria familiakoa zuen. Harreman estua zuen berarekin. Argazkian ezkerretik eskuinera: Arrospide, Jesus Maria Leizaola, Rikardo Leizaola, Fabian Loidi eta Alejandro Sota



1950eko apirilean argitaratutako ale hau gordeta zuen etxean Fabianek. Aberri Egunari buruzko gogoeta egiten da eta, besteak beste, bere lagun J.J. Azurzak 1947ko Aberri Egunean, Radio San Sebastianen 20 bat segundoko mezua aieratzea lortu zuela gogoratzen da. Erresistentzian parte hartzeko deia egiten zaie herritar gutzietan eta Agirre lehendakariak Kubara egindako bidaiaren berri ematen da

Juan Jose Usabiaga apaiz beasaindarrak Juan de Iturralde ezizena erabiliz 1956an argitaratutako *El Catolicismo y la cruzada de Franco* liburuaren ale asko Igeldo-ko apaiz etxean gorde ziren apaiz artean banatzeko. Iparraldean argitaratutako liburu hori debekatuta zegoen hegoaldean, egileak, besteak beste, frankistek gerran egindako sarraskien berri ematen zuelako zehaztasun osoz eta frankismoarekin bat egin zuen elizaren kontrako kritika zorrotzak egiten zituelako.

tik jarraitzen zituen. Legez kanpoko argitalpenak edukitzeaz gain, haiek argitaratzen eta banatzen lagundu zuen. 1950eko hamarkadan erresistentziak banatzen zituen *Euzki* izeneko esku-orriak jasotzen zituen apaiz etxean. Esku-orriak ez ezik, debekatutako liburuak ere izan zuten lekua Loidiren etxean.

Liburuak banatzeaz gain, propaganda argitaratzeko tokia ere izan zen apaiz etxea. Eusko Alderdi Jeltzaleak kopiak egiteko erositako makina bat Fabian Loidiren etxera eraman zuten *Trabajador de Euzkadi* izeneko argitalpenaren kopiak egiteko. Haren bidez, 1964ko maiatzean eta urrian manifestazioak egiteko deia egiten zen. Eusko Alderdi Jel-

tzaleko Andres Plazaolak, Luis Goyak, Jose Mari Unanuek eta Rikardo Arregik osatzen zuten besteen artean propaganda banatzeko sarea. Horiek guztiak erruduntzat hartu zituen garaiko Bake Egoerarako Auzitegiak, TOP ezagunak, legez kontrako elkartzete eta propaganda egiteagatik. Fabianek argudiatu zuen ez zekiela etxean zuen makina propagandarako erabiltzen zenik eta auzitegiak errugabetzat jo zuen. Guardia zibilak 1965eko maiatzean egindako informeak ordea, Fabianek partehartze zuzena izan zuela azaltzen du: «...y que precisamente fue imprimida en su domicilio, a pesar de su rotunda negativa a confesar su participación en estos hechos, de las manifestaciones aportadas por los detenidos ha quedado demostrado que este sacerdote sabía por los contactos que ha mantenido con los citados miembros de la organización las actividades a que se dedicaban, así como el origen y fines con que se hizo cargo de la máquina multicopista que le fué ocupada en su domicilio».




*El Catolicismo y la cruzada de Franco* liburuaren ale asko banatu zituen Loidik apaiz abertzaleen artean. Horietako bat dugu hau, bere iloba Kontxi Aisak gorde zuena

Ultimamente fornaba parte de una organización clandestina de matriz vascos-separatista, que puso en circulación en el mes de febrero o marzo del año en curso, la propaganda titulada "ASKATASUNA" que se imprimió en la fábrica de botones "APAIN", regentada por su madre, tomando parte en su impresión, además del informado, JAVIER MARIA BERMEJO IRASTORZA y FRANCISCO LUIS GOYA IZAGUIRRE. Además, fué el que recibiendo instrucciones de su padre, ELIAS ECHEVERRIA OYAOLA, exiliado en Francia, tomó contacto con el sacerdote D. FABIAN LOIDI PÉÑA, párroco del barrio de Irujo de este plaza, para que se hiciese cargo de la máquina multicopista con la cual se había imprimido la propaganda "ASKATASUNA" en la fábrica anteriormente citada y la que ~~se imprimió~~ fué puesta en circulación por los miembros del partido, titulada "TRABAJADOR DE BIZKADI" hecho que se llevó a cabo en el domicilio del citado sacerdote, teniendo como autor material de su impresión a JAVIER MARIA BERMEJO,.

Dios guarde a V.I. muchos años  
San Sebastián, 24 de noviembre de 1964  
EL TENIENTE CORONEL PRIMER JEFE

Legez kontrako propaganda egitea leporatu zioten Fabian Loidiri 1964an. Urte hartako Bake Egoerarako Auzitegiko 236 zenbakia duen sumarioan azaltzen dira zehaztasun osoz Loidiren kontrako akusazioak



# Bidaiari nekaezina

Xehetasun guztiak kontuan hartzen zituen Fabianek bidaiak antolatzerakoan. Autobusean abesteko kanta batzuk prestatzen zituen bidaiariekin kantatzeko

**F**abian Loidiri izugarri gustatzen zitzaien bidaiatzea eta bidaiak antolatzea. Hasiera batean Igeldoko haur eta gazteekin antolatzen zituen egun pasak inguruko herrietara: Pasaia, Orio, Hondarribia, Bilbo eta abar. Hendaiara joatea ere gustukoa zuen, nahiz eta askotan zailtasunak izan muga igarotzeko. Hondarribian lortu behar izaten zuten baimena, baina hori ukatuz gero, txalupan ere igarotzen zuten muga inolako baimenik gabe. Mugaz bestalde erosten zituzten Igeldoko gazteek lauburuak, ikurrinak eta gainerako euskal ikurrak, hegoaldean erabat debekatuta zeudenak.

1950eko hamarkadan hasi zen antolatzen Fabian 20 bat eguneko bidaiak atzerrira. 50-60 lagunentzako bidaiak izaten ziren eta bera arduratzen zen bidaiaria antolatu eta gida lanak egiteaz. Loidik aurrez hartzen zuen lekua aterpetxe guztietan, autobusa kontratatu, ikusi beharrekoari buruzko informazioa jaso eta prestatu... Janaria ere kontserbatan jartzen zuen, bidaiaria eraman eta jan ahal izateko. Izugarrizko lana hartzen zuen xehetasun guztiak ondo lotuta uzteko, atzerriko hizkuntzak menperatu ez arren. Eta azkenik, bidaiaria zehar autobusean abestu beharreko kanta ere prestatzen zituen. Berak sortutako kanta ziren eta orris-

1972an Londonera  
egindako bidaia



Turkiara egindako  
bidaia. Istanbulen,  
meskita baten  
aurrean ateratako  
argazkia





Aterpetxean hartzen zutenez ostatu aterpetzeko bazkide txartela atera beharra zuten bidaiariek. Honako hau Fabiaren 1959. urteko txartela da

ka batzuetan banatzen zituen bidaiarien artean.

Leku askotara antolatu zituen bidaiak: 1967an, 1975ean eta 1980an, Frantzia, Suitza, Luxenburgo, Alemania, Holan-

da eta Belgika bisitatu zituzten; 1968an esaterako, Eskoziara joan ziren; 1970ean, Norvegiaraino irisi ziren; 1977an Jerusalem izan ziren; 1978an, Marokon eta urtebete geroago Erroman. Azken bidaiak Jugoslaviara antolatu zuen, 1982an.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzogatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Iñaki Ituraini
- Kontxi Aisari
- Mari Kontxi Loidiri eta Ketxu Marañoni
- Maritxu Makazagari
- Erzilla sendiari
- Alberdi sendiari
- Sabino Arana Fundazioari

---

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2009ko azaroa

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.  
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.  
Cervantes etorb., 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)

ISBN: 978-84-457-2995-3 (Lan osoarena)  
978-84-457-2998-4

L.G.: BI - 2783-09

# BIDOGULLEAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco